

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Norbere kanalak erabiliz gero, batez ere zuzenak, irabazi marjina handiagoa da, baina martxan jartzeko kostuak eta kudeaketa kostuak handiak dira. Gure aplikazioa web-gune batean aurkituko dute bezeroek, haren gehiagoko informazioarekin eta bertatik jeisteko aukerarekin. Nahiz eta seguruenik play storen izango dute aplikazioa jeisteko aukera. Beraz gure kanala zuzena izango da; interneten bidezko salmenta izango delako.

Aplikazioaren presentazioa nola egongo da eta nola eros dezakete bezeroek; komunikabideetan anuntzioen bidez bezeroek ikus dezakete gure aplikazioa, edo sare sozialetan daudenean aplikazioaren anuntzioa atera daiteke, anuntzioan klikatzerakoan zuzenean eramaten dizu gure aplikazioa jeistea. Web-gunean aplikazioari buruzko galderak badituzte han aurkitu ditzakete arazoaren konponbidea irakurtzen edo guri galderak bidaltzen (sistema bat edukiko dugu non gure langileek edo programa batekin automatikoki galderak erantzuteko), galderak egin eta hori buruz informazioa gehiago aurkitu.



Prezio merke eta lehiakorra ez da izaten beti arrakastaren eta salmenten bermea, batez ere gure negozioa produktu edo zerbitzu propio bati lotuta badago. Gure enpresak arrakasta izango badu, behar-beharrezkoa da balio-proposamen bat zehaztea, gure bezero potentzialek harekin bat egin eta gure lehiakideen proposamenetik bereiz dezaten. Dena dela, hori ez da prozesu erraza. Gure burua ezagutzera emateaz gain, aukerako harremanak, lankidetzak eta gisakoak landuko dituzte, enpresa eta profesional parte-hartzaileen arteko hurbilketa erreal eta zehatzari bide emanez, etorkizunean sinergiak eratu eta baterako ekintzak egin ahal izateko.



Salmenta ondorengo zerbitzua; bezeroari zerbitzua eskaintzen jarraitzea oso garrantzitsua da, sekulako diru-iturri da, izan ere, bezeroak mantentzen laguntzen digu eta berriak lortzeko aukera eskaintzen du. Gure bezeroak pozik mantentzeko laguntza eskeintzeko prest gaude haiek pozik mantentzeko, horretarako lehen azaldu dugun bezala aplikazioaren web-gunean izango ditugu haiek galderak egiteko aukera eta guk erantzunoko diegu eta horretaz gain, aplikazioa nola dijoan azalduta izango dute.

